

2022KO AURREKONTUEN PRENTSA-OHARRA



Bestelakoak

Bi gurpil-aulki elektriko erostea proposatzen dugu, maileguan uzteko, mugikortasun urriko pertsonei mugikortasuna errazteko.

Udal eskumeneko bide publikoan hildako animaliak biltzeko protokoloa eta jarduteko bitartekoak planteatzen ditugu.

Udal-baratzeen erabiltzaileentzako instalazioak hobetzea eta parke linealaren ibilbidean leku estrategikoetan markesinak jartzea ere proposatzen dugu.

Onartuz gero, batzorde bateratu bat sortuko da, eta aldian-aldian bildu beharko da, udal-talde bakoitzak eskatuta, 2022an onartzen diren partiden gauzatze materiala ebaluatzeko.

Urte hauetan guztietan bezala, proposamenak aurkeztu ditugu Amurrioko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko, iraunkortasun-printzipioetatik, udal-zerbitzu publikoen kalitatea hobetzetik eta kudeaketa publiko eraginkorrago batetik. Azken batean, Amurrioko herritarren ongizatea hobetzeko diru publikoa erabiltzea proposatzen dugu.

Amurrion, 2021eko azaroaren 14an